

Raul Torregok doktore tesia irakurri du

2013/05/02

Apirilaren 26an, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Raul Torrego Artola Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Garai Poloko areto nagusian. Tesiaren izenburua Design methodology addressing static/reconfigurable partitioning for optimizing Software Defined Radio (SDR) implementation through FPGA dynamic partial reconfiguration and rapid prototyping tools eta tesi zuzendariak: Mondragon Goi Eskola Politeknikoko Eñaut Muxika eta Iñaki Val. Gainera, Europako aipamena jaso zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Tughrul Sati Arslan (University of Edinburgh) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Andreas P. Burg (École Polytechnique Fédérale de Lausanne (EPFL)) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Eduardo De La Torre Arnanz (Universidad Politécnica de Madrid) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Imanol Martinez Coca (IKERLAN) Dk. Jn.
- Idazkaria: Mikel Mendicute Errasti (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Software bidez Definitutako Irratia (SDR) komunikazio sistemek dituzten behar berriei emandako erantzun teknologikoa da (abiadura, fidagarritasuna, sendotasuna, bateragarritasuna...). Hori dela eta, doktore tesi honek era horretako komunikazio-sistemen implementazioa lantzen du. SDRak implementatzeko diseinu-metodologia bat diseinatu eta egiaztatu da, FPGAk partzialki birkonfiguratuta eta prototipatze azkarreko erremintak erabilita.



Raul Torrego Artola Tesia